

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

603/2020 Foru Agindua, azaroaren 20koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatarrena, zeinaren bidez ezartzen dira zergapeko pertsona eta erakunde jakin batzuek zerga eredu eta eskaerak modu telematikoan, Internet bidez, aurkezteko baldintza orokorrak

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 6ko 32/2020, Arabako Foru Ogasunean aitortpenak eta autolikidazioak modu telematikoan aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak arautu ziren.

Foru agindu honetan zehazten dira modu telematikoan, Internet bidez, aurkeztu beharreko zerga aitortpenak eta eskaerak, bai eta betebeharrak hori ezarri zaien pertsonak eta erakundeak ere.

Aztertu dut Zerga Sarrerak Kudeatzeko Zerbitzuak emandako txostena.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Aplikazio eremu objektiboa

Bat. Foru Agindu hau zerga aitortpen, autolikidazio eta eskaera hauetan aplikatuko da:

- 170 eredua. Kreditu edo zordunketa txartelen bidezko kobrantza sistemari atxikitako enpresariak eta profesionalek egindako eragiketen informazio aitortpena.
- 171 eredua. Diru ezarpenen, funts baliatzeen eta edozein agiri kobratzearen urteko informazio aitortpena.
- 179 eredua. Etxebizitzak erabilera turistikorako lagatzeko informazio aitortpena.
- 180 eredua. Hiri higiezinak alokatzearen etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena.
- 181 eredua. Mailegu eta kredituen, eta ondasun higieziari lotutako finantza eragiketen informazio aitortpena.
- 182 eredua. Dohaintza, emari eta ekarpenen eta egindako baliatzeen informazio aitortpena.
- 184 eredua. Errentak eratzitzeko araubidean dauden erakundearen urteko informazio aitortpena.
- 187 eredua. Talde inbertsioko erakundearen kapitalaren edo ondarearen akzioei edo partaidetzei buruzko informazio aitortpena, eta akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena.
- 188 eredua. Kapitalizazio eragiketen eta bizi zein elbarritasun aseguruaren ondorioz lortutako kapital higigarriaren etekinen edo errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena.
- 189 eredua. Balio, aseguru eta errenten urteko informazio aitortpena.
- 190 eredua. Lanaren eta jardueraren ekonomikoen etekinen, sarien eta errenta egozte jakin batzuen atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena.
- 192 eredua. Altxorraren letrekin egindako eragiketen urteko aitortpena.

- 193 eredua. Kapital higigarriaren etekin jakin batzuen eta errenta jakin batzuen gaineko atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena.
- 194 eredua. Besteren kapitalak erakartzean eta erabiltzean edozein aktibo mota eskualdatu, amortizatu, itzuli, trukatu edo bihurtzearen ondoriozko kapital higigarriaren etekinen eta errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarreren urteko aitortpena.
- 195 eredua. Titularrek IFZ ezarritako epean kreditu entitateei jakinarazi ez dieten kontu edo eragiketen hiruhileko aitortpena.
- 196 eredua. Edozein motatako finantza erakundeetako (finantza aktiboaren gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne) kontuen ondoriozko kontraprestazioen bidez lortutako kapital higigarriaren etekinen eta errenten gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak, eta kreditu erakundeetako kontu jakin batzuen urteko informazio aitortpena.
- 198 eredua. Finantza aktiboekin eta bestelako balore higigarrieekin egindako eragiketen urteko aitortpena.
- 199 eredua. Kreditu entitateen txeeekin egindako eragiketen aitortpena.
- 20R eredua. Eragiketa hauen zerga araubide berezia aplikatzeko aukera komunikatzea: bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoak eta Europako sozietate edo sozietate kooperatibo baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea.
- 231 eredua. Herrialdeka xehatutako informazio aitortpena.
- 232 eredua. Lotutako eragiketen eta zerga paradisu-tzat jotzen diren herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketen eta egoeren informazio aitortpena.
- 270 eredua. Loteria eta apustu jakin batzuen gaineko karga berezien atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena.
- 280 eredua. Epe luzerako aurrezki planen urteko informazio aitortpena.
- 289 eredua. Finantza kontuen urteko informazio aitortpena elkarrekiko laguntzaren esparruan.
- 290 eredua. Estatu Batuetako pertsona jakin batzuen finantza kontuen urteko informazio aitortpena.
- 291 eredua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik izan gabe lortutako etekinen informazio aitortpena.
- 296 eredua. Establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarren atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena.
- 345 eredua. Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen, pentsio plan eta funtsen, ordezkio sistemen, gizarte aurreikuspeneko mutualitateen, aurreikuspen plan aseguratuen, aurrezpen sistematikoko banakako planen, enpresaburuen gizarte aurreikuspeneko planen eta menpekotasun aseguruaren urteko aitortpena.
- 346 eredua. Nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza jarduerak direla-eta emandako dirulaguntza, kalte-ordain eta laguntzen informazio aitortpena.
- 347 eredua. Hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteroko aitortpena.
- 349 eredua. EBren barruko eragiketen laburpen aitortpena.
- 480 eredua. Aseguru primen gaineko zerga aitortpenaren urteko laburpena.
- 553 eredua. Ardo eta edari hartzituen fabriketan eta zerga gordailuetan egiten diren eragiketen zergaren aitortpena.

- 720 erdua. Atzerrian diren ondasun eta eskubideen informazio aitortpena.
- 781 erdua. Etxebizitza kontuen informazio aitortpena.
- 782 erdua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak erosteko gordailuen urteko informazio aitortpena.
- 036 errolda ereduak. Arabako Foru Aldundiaren Zergadunen Errolda Bakarrean alta edo baja eman edo aldaketak egiteko errolda erdua. Egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona juridikoak. Sozietateen gaineko zerga ordaintzen duten nortasun juridikorik gabeko erakundeak, administrazio publikoak eta bestelako erakundeak, IFZ eskatzen den kasuak izan ezik.
- 037 errolda ereduak. Arabako Foru Aldundiaren Zergadunen Errolda Bakarrean alta edo baja eman edo aldaketak egiteko errolda erdua. Jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoak, sozietate zibilak, ondasun erkidegoak eta errentak eratzikitzeko araubideko beste erakunde batzuk, IFZ eskatzen den kasuak izan ezik, eta hura modu presentzialean eta Arabako Foru Ogasunaren laguntzarekin betetzen baldin bada.
- Autolikidazioak:
 - 110 erdua. Lanaren etekinen, jarduera ekonomiko jakin batzuen eta sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarrerren aitortpena eta likidazioa.
 - 111 erdua. Enpresa handien lanaren etekinen, jarduera ekonomiko jakin batzuen eta sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarrerren aitortpena eta likidazioa.
 - 115-A erdua. Hiri ondasun higigarrien alokairuak sortutako etekinen gaineko atxikipenei eta konturako sarrerei buruzko aitortpena eta likidazioa.
 - 117 erdua. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioak eta partaidetzak eta harpidetza eskubideak eskualdatzearen edo itzultzearen ondorioz lortutako ondare errenten edo irabazien gaineko atxikipenen edo konturako diru sarrerren/ordainketen aitortpena eta likidazioa.
 - 123 erdua. Kapital higigarriaren etekin jakin batzuen gaineko atxikipenen eta konturako sarrerren aitortpena eta likidazioa.
 - 124 erdua. Besteren kapitalak erakartzean eta erabiltzean edozein aktibo mota eskualdatu, amortizatu, itzuli, trukatu edo bihurtzearen ondoriozko kapital higigarriaren etekinen eta errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarrerren aitortpena eta likidazioa.
 - 126 erdua. Edozein motatako finantza erakundeetako (finantza aktiboen gaineko eragiketetan oinarritutakoak barne) kontuen ondoriozko kontraprestazioen bidez lortzen diren kapital higigarriaren etekinen eta errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarrerren aitortpena eta likidazioa.
 - 128 erdua. Kapitalizazio eragiketen eta bizi zein elbarritasun aseguruaren ondorioz lortzen diren errenten edo higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarrerren aitortpena eta likidazioa.
 - 130 erdua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Jarduera ekonomikoen ordainketa zatikatua. Jarduna hastea.
 - 200 erdua. Atzerrian eratu diren baina Arabako Lurralde Historikoan presentzia duten establezimendu iraunkorrei eta errentak eratzikitzeko araubideko erakundeei dagokien sozietateen gaineko zergaren eta ez egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitortpena eta likidazioa.
 - 202 erdua. Atzerrian eratu diren baina Arabako Lurralde Historikoan presentzia duten establezimendu iraunkorrei eta errentak eratzikitzeko araubideko erakundeei dagokien sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatua.
 - 203 erdua. Sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatua.

- 210 eredua. Establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ohiko aitortpena egiteko autolikidazioa.
 - 211 eredua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrei higiezinak erostean egindako atxikipena.
 - 213 eredua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga: Egoiliarrek ez diren entitateen higiezinaren gaineko karga bereziaren autolikidazioa.
 - 216 eredua. Establezimendu iraunkorrik izan gabe lortutako errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren aitortpena eta likidazioa.
 - 220 eredua. Zerga baterakuntzaren araubideko sozietate nagusiei edo taldeko erakunde buruei dagokien sozietateen gaineko zergaren aitortpena eta likidazioa.
 - 222 eredua. Zerga baterakuntzaren araubideko sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatua.
 - 223 eredua. Zerga baterakuntzaren araubideko taldeen sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatua.
 - 230 eredua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta zergadun ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga: zenbait loteria eta apustutako sarien gaineko karga bereziaren atxikipenen eta konturako sarreraren autolikidazioa; sozietateen gaineko zerga: zenbait loteria eta apustutako sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren autolikidazioa.
 - 303 eredua. Balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioa.
 - 310 eredua. Araubide erraztuko balio erantsiaren gaineko zergaren hiruhileko aitortpena.
 - 318 eredua. Ondasun emateak edo zerbitzu prestazioak ohikotasunez egiten hasi aurreko likidazio aldiei dagozkien tributazio proportzioak erregularizatzea.
 - 322 eredua. Erakunde taldea. Banakako eredua. Balio erantsiaren gaineko zergaren hileko autolikidazioa.
 - 353 eredua. Erakunde taldea. Eredu erantsia. Balio erantsiaren gaineko zergaren hileko autolikidazioa.
 - 390 eredua. Balio erantsiaren gaineko zergaren araubide orokorra. Urteko aitortpena eta likidazioa eta araubide berezien eranskina.
 - 391 eredua. Araubide erraztua. Balio erantsiaren gaineko zergaren urteko aitortpena eta likidazioa.
 - 410 eredua. Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zergaren ordainketaren autolikidazioa.
 - 411 eredua. Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zergaren autolikidazioa.
 - 430 eredua. Aseguru primen hileko aitortpena eta likidazioa.
 - 560 eredua. Elektrizitatearen gaineko zergaren autolikidazioa.
 - 581 eredua. Hidrokarburoen gaineko zergaren autolikidazioa.
 - 583 eredua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren autolikidazioa eta ordainketa zatikatua.
 - 763 eredua. Joko jardueren gaineko zerga.
- Hurrengo eskaerak:
 - a) Zerga betebeharrak egunean dituztela dioten ziurtagiriak (azpikontratatistak, zerga egoera, dirulaguntzak, administrazio publikoekiko kontratuak).

b) Beste ziurtagiri batzuk (landa edo hiri ondasun higiezinak; balio erantsiaren gaineko zergaren errolda; jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga; errolda egoera; birsaltzaile izaera, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 84 Bat 2 g artikulua arabera).

c) Zerga zorren ordainketa zatikatzeko edo geroratzeko eskaerak.

Bi. Foru agindu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, aitorpenei egindako erreferentziak zerga aitopen, autolikidazio eta eskaerei egiten zaizkiela ulertuko da.

2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa

1. Jarduera ekonomikoa garatzen duten zergapekoek aurkeztu beharko dituzte aurreko artikuluan aipatzen diren aitopenak modu telematikoan, baita sozietateen gaineko zergaren zergadunek ere, baldin eta Ekonomia Itunean ezarritakoarekin bat etorri kasuan kasuko aitopenak Arabako Foru Aldundian aurkezteko betebeharra badute.

Aurreko paragrafoan aipatutako jarduera ekonomikoaren kontzeptua pertsona fisikoen errentaren gaineko zergen ezarritakoa da.

2. Aitopen horiek bide telematikoan aurkeztu beharra daukate hirugarrenen zerga aitopenak aurkezteko baimena duten profesionalek ere, baldin eta altan badaude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren mendeko Baimenen Erregistroan, apirilaren 20ko 50/2001 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorri.

3. Aurreko apartatueta ezarritakoaren esparruan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak, aurreko artikuluan sartzan ez den aitopen mota bakoitza onestean, horiek modu telematikoan aurkezteko betebeharra duten zergapekoak zein diren adieraziko du.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren otsailaren 3ko 39/2010 Foru Agindua, zergadun jakin batzuek eredu jakin batzuk modu telematikoan Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen, bai eta foru agindu honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak ere.

Aurreko paragrafoan aipatutako xedapenak indargabetzeak ez dio eragingo indarraldian zehar sortutako zerga betebeharrari dagokienez Zerga Administrazioak dauzkan eskubideei.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean; foru agindu honen 1. artikuluan zerrendatutako zerga aitorpenei aplikatuko zaie, eta 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitorpenei eragingo die.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 20a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA